

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2000ko uztailearen 6an • 194. zka.



Udalekua umeen bigarren etxea

Iturririk iturri: Imanol Galfarsoro • Iriztia: Jon Etxeberria • Kirolak: Joseba Larrinaga



Neurrira egindako
edredoiak,
estoreak,
kortinak,
nordikoak,
bandoak eta
neurria
moztutako
oihalak.

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO

ZATOZ LORAMENDIRA ☆ ☆ BERTAN AURKITUKO GAITUZU ☆ ☆ ZATOZ LORAMENDIRA

FARMA



BIZI

Parafarmazia



- ! Haurrentzako produktuak eta elikagaiak
- ! Dermokosmetikako produktuak
- ! Sanitatezko produktuak
- ! Sendagai naturalak
- ! Produktu ortopedikoak
- ! Produktu dietetikoak

... eta gainera: **Kontsulta naturala**


Loramendi, 8
20550 ARETXABALETA K Tel.: 943 77 18 18



ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

ESTETIKA



ILEAPAINDEGI
ESTETIKA
SOLARIUMA
LORAMENDI, 10
TEL: 943 77 01 26
20550 ARETXABALETA

*G*arbitze

GARBIKETAK


Lehor eta busti garbiketa

Mota guztietako
jantzien garbiketa

Loramendi, 6
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 53 61

ZATOZ LORAMENDIRA ☆ ☆ BERTAN AURKITUKO GAITUZU ☆ ☆ ZATOZ LORAMENDIRA

Komertzioak domeketan zabaltzearen inguruan zein iritzi duzu? Zuk zabalduko zenuke, edo eta joango zinateke erostera?



Miguel Perez

Denda txikientzat ez da batere neurri ona dendak domeketan ere zabaltzearena.

Denda domeketan zabalduz gero, guk lan egin behar dugu edo beste norbait hartu.



Marta Mancebo

Domeketan komertzioak zabaltzeko beharrik ez dagoela uste dut, eta gainera, ez dut uste irabazi haundirik lortuko dutenik.



Vicente Cubillo

Lege berri hori ez dut bate-re ondo ikusten komertzio txikientzat.

Nik behintzat ez dut denda domeketan zabaltzeko asmorik.



Mila Zabaleta

Hori komertzianteen arazoa da, erosleona baino gehiago.

Dena dela, uste dut ez duela zabaltzerik merezi, jai egun bat ere izan beharko dugu guztiok.

ESKUTITZA

BAJU KOMERTZIALEN ERABILERA EGOKI BATEN ALDE

Gure herria asko ari da aldatzen azken urteotan. Gero eta herri haundia goa da, baina era berean gero eta bizitza gutxiago egiten dugu bertan. Aretxabaleta LO EGITEKO herria ari da bihurtzen gutxika-gutxika. Honek, nire iritziz, herriko merkataritzaren beherakada ekarri du azken urteotan, zenbat denda itxi dira? lau bai gutxienez azkenaldian.

Egiten diren etxebizitza bloke berrien baju komertzialak utzik daude, asko eta asko egoera oso txarrean (pintada eta halakoekin guztiz zataratuak). Ez zaie erabilerarik ematen baju komertzial hauei, eta hor daude,

utzik eta hilak. Bestalde, jakina da etxebizitzekin dagoen arazoa larria dela, etxeak garestiak direla eta askok ezin dutela etxe berririk erostea planteatu ere egin.

Nire proposamena hau da: baju komertzial hauek, altuera nahikoa dutenak behintzat (Belorrieta poligonokoak esate baterako), etxebizitza bihurtzea. Honela erabilera egoki bat eman go genieke utzik dauden baju komertzialei, eta era berean, erraztu egingo genuke etxebizitzaren arazoa, prezio merkeagoetan jarritz... Badakit holako zerbait egiteko legeak aldatu behar direla, baina nik uste merezi duela horrelako ahalegin batek, ezertarako balio ez duten baju komertzialei probetxu on bat atera eta

herriaren mesederako izango litzatekeelako. Besterik gabe, agur bero bat eta eskerrik asko.

Luis Mari Urcelai

Aretxagazeta

194. zenbakia
2000ko uztailaren 6an.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Zuzendaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz,
Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arrojabbe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaileak:
Aitor Urrutia, Nerea Lete, Aiora Filarmendi.

Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.
Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoa egiten da.
Lege gordailua: 55378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



FATXADAK MARGOTZEKO DIRU PARTIDA HAUNDITU DA

Etxeetako fatxadak margotzea gura duten herritarrentzat udalak diru laguntzak emateko diru partida du. Aurten beste urte batzuetan baino eskaera haundiagoa egon denez partida hau haunditzea erabaki du udalak, lehengo bi milioiei beste milioi bat gehituz. Fatxadak margotzeagatik udalak ematen duen diru laguntza 100 pezeta metro karratuko izaten da. Margotzeagatik bakarrik ez, konpontzeagatik ere ematen ditu eta hemengo diru partida ere haunditu egin du 500.000 pezetatik 1.300.000 pezetara.

Loramendi eta Araba Ibilbideko etxe batzuk jadanik margotu dira aurten eta orain Errekabarren kaleko etxebizitzak txukundu eta margotzen ari dira. Herritarrek etxe eta kaleak zaindu eta txukun mantenduz herri polita izango dugu.



Portasolgo jaiak uztailaren 14, 15 eta 16an egingo dira

Portasolgo jaiak uztailleko hirugarren aste bukaeran

Urtero letxe aurten ere Portasolgo San Lorentzo jaiak ospatuko dira uztailan. Aurten uztailleko hirugarren aste bukaeran izango dira 14, 15 eta 16an, hain zuzen. Horretarako, jadanik buru-belarri dabil lanean gazte talde bat jaiak giro onean burutu daitezen.

Egitarauaren berririk ez
Gure asmoa egitarauaren berri ematea bazen ere, antolatzaileek Aretxagazetari ez diote eman gura izan. Beraz, kalean edo beste nonbait begiratu beharko dugu zer antolatu den eta egun hauetan zer izango den jakin ahal izateko.

TABERNETAKO ZARATA NEURTZEKO APARATUA EROSIKO DU UDALAK

Tabernetako zarata neurtuko duen aparatua erosteko 130.000 pezetako partida onartu zuen udalak plenean. Sensedun aparatua izango da, ordu bakoitzean zelako zarata dagoen grabatuko duena. Ondoren ordenagailura konektatu eta jasotako datuak emango ditu. Momentuoro zenbat dezibelioko zarata dagoen ere ikusi ahal izango da daukan pantailan. Aparatu hau herriko tabernetan jarriko litzateke txandaka. Horretarako datozen egunotan bilera egingo da tabernariekin euren jarrera ikusi eta aparatua jarteko boluntarioak eskatzeko.

Aparatua erostean erabakia tabernetako zaratak direla eta jasoten diren kexen ondorioz hartu da. Orain artean kexak zeudenetan Arrasateko udalean eskatzen zen eta hangoa jarri tabernan baina kexek behera egiten ez dutela ikusita Aretxabaletako udalak berea erostea erabaki du. Horrela datu basea sortu eta kexak daudenetan, egun horretan gertatutakoa jasota edukiko da herritarri erantzun bat emateko. Hirigintza sailetik egingo zaio hain zuzen jarraipena aparatuari.

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34

JOSU HARATEGIA
Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 943 77 03 08



Uztailaren 12an euskal presoen alde martxan

Euskal Herriko plataformen bilkurak eta Senideak ek deituta joan zen ekainaren 14an euskal presoen eskubideen aldeko martxa nazionala hasi zen iparraldean. Debagoienara uztailaren 12an helduko da eta Aretxabaletan arratsaldeko 5etan sartuko da Eskoriatzatik bueltan.

Testigua, Almeneko bide kurtzean jaso eta plataformari atxikimendua adierazitako taldeetako ordezkarien artean txandatu da 100 metrora. Arratsaldeko 6etan, barrez, Mugarrin arrasatearrei emango zaie. Printzipioz ez dira kaleak zenbakituko, beraz, argi

egon beharko dira testigua jaso behar dutenak, guztira 39. Ekimen hau, ordea, ez da herriko taldeentzat bakarrik, herritar guztientzat baizik. Testiguaren atzetik presoek aldeko aldarrikapena daraman pankarta eroango da eta herritarrek honekin batera joatera animatu gura dira. Ea ekintza polita izaten den.

Mendi irteera

Aurreko domekarako, hilaren 9rako, presoek aldeko martxa hau girotzeko Debagoieneko plataformek mendi martxa antolatu dute. Mendi irteera hau Arantzazutik Urbiara egingo da

eta irteera Sindika ostatuan izango da goizeko 10etan. Eguraldiak laguntzen badu behintzat giro polita sortzea espero da.


Enkartzeladak eguakotzetan

Uztailean zehar, plataformak antolatutako enkartzeladak eguakotzetan egingo dira. Biltzeko tokia ere aldatu egingo da eliza aurrera oso jende gutxi etortzen zelako. Datorren eguakotzetik aurrera Anduaga drogeria parean, Durana kalean egingo dira arratsaldeko 19:00etan. Horrela, txikiteoa utzita, lehen baino jende gehiago etortzea espero da.



Trenbidetik Bainetxera doan errepidea egiten hasiko dira uztailean

Loramendi kalea Bainetxerekin lotzen duen errepidea egiteari ekingo zaio laster batean. Errepide honek bi zati izango ditu: bata, Loramendi kaletik trenbideraino, honen kargu Amara enpresa eraikitzailea egingo da eta bestea, trenbidetik Bainetxeraino, hau udalaren esku dago. Bigarren zati hau egitearen ardura Galdiano enpresari eman dio udalak, konkurtsora aurkeztutako bi enpresen artean puntu gehien lortu zituena izan zelako. Lanak, hamabost egun barru hastea espero da eta lau hilabete eta erdian bukatuko dituzte, honen kostua, barrez, 98 milioikoa izango da.



39 ordezkarien artean eroango da testigua baina herritar guztien parte-hartzea eskatzen da

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABAETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABAETA

Herriko plan estrategikoa egiten hasi da

Etorikizuneko Aretxabaleta zehaztuko duen plan estrategikoa egiteari ekin dio LKS enpresak udalak aginduta. Gaur egun gure herriak dituen gabeziak eza-gutu eta hurrengo urteetako beharrak aurreikusiaz egin beharreko inbertsioak jakitea da asmoa. Horrela bada, azken helburua herriaren garapen sozio-ekonomikoa bultzatzea eta herriaren bizi kalitatea hobetzea izango litzateke.

Herritarren parte-hartzea

Plan estrategikoa hau herri-talde eta herritar gutziet

zabalik dago eta ahal den jende kopuru handienak parte-hartzea gura da. LKS enpresa lehenengo elkarriketak egiten hasi da eta honen ostean lan taldeak osatuko dira. Industri gizonak, turismo eta komertzioetako langileak, herriko heziketaren eta formakuntzaren arduradunak, nekazal munduko ordezkariak, kultur eta gizarte taldeetako langileak... denak izango dira protagonista. Plan estrategikoa diagnostia eta diseinua egin ostean lan talde zehatzagoak sortuko dira, arloz arlokoak

hain zuzen.

Kristina Mujika, LKSko proiektuaren arduradunaren esanetan helburua jakinda, momentu honetan daukaguna eta lortu gura dugunaren artean dagoen tarteaz aztertuko da. Horretarako aholkulari kontseilua eta kontseilu orokorra osatuko dira, baita komisi teknikoak ere arlo bakoitzeko helburuak eta estrategiak zehazteko.

Plan estrategikoa hau bost hilabeteren buruan egiteko asmoa dago eta alkatearen esanetan aldioro esango da nola doan.



Goi tentsioko kablea jarteko lanak hasita daude

Ederlan lantegira argi indarra ekarriko duen goi tentsioko kablea jarteko lanak hasita daude. Dorreak eusteko zutabeak jarrita daude eta orain dorreak eurak jartzen hasi dira. Abuztuan seguru asko kableak jarriko dira irailan lanak bukatu ahal izateko, Ederlanek lehenbailehen gura baitu argi indarra.

Aldaketa txiki bat egon bada ere Aretxabaletari dagokionean, Iberdrolak aurkeztutako hasierako proiektua erabiliko da kablea sartzeko: Bedoña azpitik etorri eta kanposantu eta Elizgarai baserriaren artean pasatuko da, Urzelaitarren baserriaren atzetik 90 metro-ra pasatu eta Bainuetxe gainetik Ederlanera joko du.



Alkateak plan estrategikoa lehenengo pausuen berri eman zuen

ESKORIATZA
Bazkari eta afariak
ERRETEGIA
MENDIOLA

Tfno 714 345

Astelenetan itxita
ESKORIATZA

DOIKALSE
Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 82 44

Martín

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72

Bere bezeroen zerbitzura

San Migel erretegia

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71

UZTAILAREN 10EAN SAN KRISTOBAL LARRIÑON

San Kristobal eguna ospatzen dute Lariñoko auzokideek. Garai bateko jairik ez da egiten baina zapatuan auzokideen arteko afaria eta meza astelehenan, San Kristobal egunean, behintzat izango dute, arratsaldeko 19:30ean, hain zuzen. Eliza, gainera, kanpotik bakarrik bada ere txukundu egin dute: teilatua eta tximistorratza konpondu dira eta frontoia txukundu. Aste honetan bertan bukatuko dute margotzen.



Informatikako oinarrizko ikastaroa antolatu du Saretxok

Saretxo elkarteak informatikako oinarrizko ikastaroa antolatu du uztaileko lau zapatuetarako. Helburua, ordenagailuari beldurra kendu eta Saretxo elkartean dagoen materiala ezagutu eta erabiltzen jakitea da: posta elektronikoa, sarearen erabilera, ofimatika, ordenagailuaren barrualdea, eskaneatzea... Hilaren 8an bertan emango zaio hasiera ikastaroari eta goizeko 9etatik eguerdiko

ordu batera luzatuko da.

Ikastaroa 18 urtetik gorako bazkideentzat da eta 1.000 pta. ordaindu beharoko dute. Dena dela 5000 pta. ren truke oraindik badago bazkide egiteko aukera eta ondoren Saretxoko zerbitzu guztiak erabili daitezke urte gutzian zehar. Interesatuak Aretxagazetara dei egin dezakete edo Alberto Izagirrerekin harremanetan jarri 943 79 10 51.



SAN JUAN BEZPERAK UTZITAKOA GOGORATUZ

Bati baino gehiagori honez gero ahaztu ere egingo zitzaien, baina aipatzekoa izan zen San Juan bezperako giroa. Ederto pasatu zuten umeek bonba japoniar eta buruhandiekin. Lora-mendi dantza taldekoen dantzek guraso eta herritar ugari erakarri zituen plaza-ra. Gauean, barrez, San Juan sua eta tantaiaren igotera. Tantai galanta ekarri zuten mutilek eta hiru ekinaldi behar izan zituzten zutik jarteko. Hainbeste kostata igotako tantaia domeka gauean bota egin zuten ezezagun batzuk motozerra eta guzti.

Sitsa termita pipia

Altzari eta egurrean

Hustutze bikoitzeko
tratamendua babestaile
homologatuekin

Etxean bertan jasotzen ditugu
Gipuzkoa osoan zehar

Tel.: 696 913 566

Aparadorea 2 ate 1x 0,5 x 1 m .. 7.000 pta

Komoda 4 kajoi, 1 x 0,50 x 1 m 8.000 pta

Egurrezko aulkia 3.000 pta

Mahaiaik, hanka lauak, lau lagun 5.000 pta

Ohea 90 cm 4.500 pta

Mahaitxo txikia 3.000 pta

BEZa %16a gehitu gabe

Garraioa: jasotzea 1.500 pta, ematea 1.500 pta



GIZAINZA

- Gaixo eta hirugarren adinekoen zaintze lanak
- Etxez-etxeko laguntzan espezializatuak
- Ospitaleko egonaldi eta gauak
- Oporretan ere zaintzen ditugu etxeoak
- Klinika eta Geriatria laguntzaileak ere baditugu
- Goxotasuna eta Zerbitzua

Etxaluze, 54
20560 OÑATI

Tel. Mugikorra: 657 71 01 50

ZUTABE



Udal zerbitzua izanik Eusko Jaurlaritzatik diru laguntza haundiagoak jasoko dira

Udaleko haur eskola zerbitzua sortu gura da

Udal haur eskola sortzeko lehenengo pausua eman zen ekainaren 26an egindako osoko bilkuran. Bertan, udal haur eskola honek izango duen barne araudia onartu zen, hau da, eskola laikoa izatea, funtzionamendu demokratikoduna eta euskara izatea bertako hizkuntza. Azterketa ekonomikoa ere egingo da, haur eskola honen bideragarritasuna jakiteko. Ondoren konkurtsora ateratzeko baldintzak zehaztuko dira eta azkenik prezioak onartu eta udal ordenantzetan sartuko dira.

Pausokak hamar urte
Jadanik 10 urte daramatza Aretxabaletako haur eskolak, Pausokak, funtzionamenduan. Lau bazkidek sortu zuten eta udaleko lokaletan kokatuta egon arren eta udalaren diru laguntza jaso arren orain artean ez da udal zerbitzua izan. Orain, joan zen asteleheneko plenoan onartu zen bezala, udal zerbitzu bihurtuko da, enpresa partikular batek kudeatuko duen udal zerbitzua.

Aldaketa honekin Eusko Jaurlaritzatik orain artekoak baino diru laguntza

haundiagoak jasoko dira eta horrela, beka zerbitzu bidez, jende gehiagok izango du umeak haur eskolara eramateko aukera. Laster batean hasiera emango zaion udal zerbitzu honek, haur eskolak Eusko Jaurlaritzako sare publikoan sartu arte edo udalak zerbitzu honen beharrik ez dagoela ikusi arte funtzionatuko luke.

Momentuz udal haur eskola sortzeko konprometua hartu du udalak, konkurtsora aurkezteko oinarriak, barrez, uztaillean onartu eta kaleratzea espero da.

■ **KIROLETXEAN ENPRESA GARBITZAILEA HARTU DA**
Ekainaren 26an egindako plenoan Cespa enpresari eman zitzaion kiroletxea garbitzeko ardura. Enpresa honek Euskal Herri eta Espainiar estatuko hainbat herritan egiten du lan. Beraz, hemendik aurrera kiroletxea gestionatzen duen familiak ez du garbitasunaren ardurarik izango. Jose Mari Armentia kirol zinegotziaren esanetan honek aldaketa bat baino gehiago ekarriko ditu irailetik aurrera kiroletxeak eskaintzen dituen zerbitzuetan. Bestalde orain aste batzuk, kiroletxean sartzeko txartel elektronikoa erabiltzeko sistema jartea erabaki zen.

■ **ALARMA JARRIKO DA BASOTXON**
Apirilaren 30ean hasita lau aldiz sartu dira lapurrak Basotxo tabernan, azkenengo ekainaren 24an hain zuzen. Lapurrek ez ei dute gauza haundirik eroan, txiskero batzuk, tabakoa eta edariak, gordeta zeuden whisky botilak esate baterako. Honen aurrean eta konponbiderik egokiena delakoan Basotxon alarma jartea erabaki du udalak. Dena dela jakina da Basotxo atzeko aldean egoten diren gaztetxo batzuk dirrela bertara sartutakoak.

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

“ARINSA”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

Seberiano Ayastuy Argentinan misiolari

Seberiano Ayastuy Argentinan misiolari dagoen 86 urteko marianista, gure artean dugu. Orain egun batzuk etorri zen, eta hemen egongo da Andramaixak artean. Tarte horretan familiakoekin egon, bazterrak ikusi eta Argentinan aurrera eramane nahi duen proiektua zabalduko du.

Misiolari bizitza

Seberiano Ayastuy orain 86 urte jaio zen Ojala zelai baserrian. Urte mordoxka hauetan han eta hemen ibili da. Umetan Aozaratzan egin zituen ikasketak, Gregorio Gabilondo gatzagarra maixu zuela. Gero Almeneko marianistetan, Gasteizen, Segovian, Madrilen eta Suitzan ere egon zen. 55 urtekin Afrikara joan eta Tongon 12 urte egin zituen. Azken 17 urteotan, barrez, Argentinako iparraldean dago, Chaco probintzian, Comandancias Frías deritzon eremuan.

Abare lana

Seberianok ebanjelioa zabaltzea du bere eginkizun nagusietako bat Argentinan. Mezak ematen ditu hainbat herritan, eta horretarako, distantzia luzeak zeharkatu

behar izaten ditu egunero, gaur egun furgonetan, baina garai batean zaldian. Horrez gain, familiak eta gaixoak bisitatzen ere pasatzen du denbora. Dagoeneko jubilatuta egon arren, aspertzeko betarik ez duela aitortu digu. Egunero goizean goiz jaiki eta eskolaz eskola ibiltzen da. Beretzako hezkuntza, lana eta ura dira momentu honetan erronka nagusiak.

Ur egokia jaso asmotan

Argentinan Seberiano bizi den eskualdea lehorte luzeakoa da. Euria egin arren, hilabete luzeak izaten dira ur gutxikoak. Era berean, errekako ura gatz askokoa da eta lur azpitik ateratzen denak, barrez, arsenikoa du. Animalientzako ez da txarra, baina bai pertsonentzako. Beraz, euren behar garrantzitsuenetakoa ur egokia izatea da. Jainkoari ura eskatzea ez dela nahikoa dio Seberianok, izan ere, "Jainkoak ura ematen digu, baina guk jasotzen ikasi behar dugu". Ura jasotzeko biltegiak egin nahi dituzte eta horretarako hirugarren munduko taldeei laguntza eskatuko die. Proiektuak



Seberiano Ayastuy Ojala zelai baserrian, bere jaiotetxean

35.000 mila dolarreko aurrekontua eskatzen du eta laguntza hori hemengo taldeen bidez bideratzea gurako luke misiolariak. Laster jakitera emango du, gainera, herritarrok proiektuan nola lagun dezakegun.

Bizitzen ikasi

Bizitza luzea eta esperientzietan aberatsa izan du Seberianok. Bere adierazpenetan, urteek bizitzen erakutsi diote. 86 urte samur esaten

diren arren, osasuntsu eta itxaropentsu aurkitu dugu, oraindik herriaren aldeko proiektuetan burubelarri lanean. Hain urruti bizi arren, gainera, euskara ez du batere ahaztu, eta aise mintzatzen da bere ama hizkuntzan.

Gure partetik, Seberiano, jarraitu orain bezala, sasoi onean aurrerantzean ere. Hemendik ahal duguna egingo dugu, Chacon ur egokia izan dezazuen.

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
Arexabaleta



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (2. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



Loramendi 1, • Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Gaztetxeko jaian 70 lagunetik gora bildu zen

Joan zen uztaillaren 1ean, Gaztetxeko jaia ospatu zen. Inguruko hainbat herrietan ere jaiak zirela kontuan hartuta jendetxoa pilatu zela bertan aipatu behar. Bazkarian 70en bat lagun egon ei ziren eta ondoren egin zituzten jokuetan ere parte hartze haundia izan zen. Partxis lehiaketan Jeanette Bragado izan zen irabazlea,

ping-pongean Iñaki Arnaiz, finalean anaiari irabazi ostean, eta futbolinean ere Arnaiz anaiak suertatu ziren irabazle. Gogor ibili ziren gero Arnaiztarak! Kontzertuek ere, bakoitzak bere estiloan, giro bikaina jarri zuten eguerdi eta gau partean. Bukatzeko gure eskerrik be-roena gaztetxeko lagunei argazkiak atera zizkigutelako.



Entsalada eta sahiets erriak, ez da gero menu txarra!



Neska eta mutil, denak animatu ziren futbolinean jokatzera



Partxisean ere gogor aritu ziren, azkenean Jeanette nagusi



Arnaiz anaiak elkarren aurka, final gogorra izan zen

Okindegia - Gozategia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
 Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81
 Aretxabaleta
 Bertako ofina

Mobiliario
ARENAZA


• ALTZARIAK
 • DISEINUA
 • APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
 ARETXABALETA

IZOTZ
 Taberna

Mitarte, 16 • Tel.: 79 73 65
 Aretxabaleta

*Euskal Kulturaren
Ikasketen Nazioarte-
ko I. Jardunaldiak
egin dira Londresen.
Atxabaltar bat ibili
da buru-belarri jar-
dunaldi hauek anto-
latzen: Imanol
Galfarsoro,
"herrero"ren semea.*



Imanol Galfarsoro Londreseko euskal aste kulturala antolatzen

■ **Nolatan atxabaltar bat Londresen?**

■ Oso gazte Frantziara joan nintzen. Hango Tolosan Zientzia Hispanikoak egin bitartean, Bordelen Euskal Ikasketak ikasten hasi nintzen. Han Donna ezagutu, emaztea, eta Londresera etorri nintzen bizitzera. Gaur egun Londresko Guildhall Unibertsitatean dihardut gaztelania eta hizkuntzalaritza irakasten.

■ **Baduzu loturarik Aretxabaletarekin?**

■ Bai. Familia eta lagunak hantxe ditut. Hona datozeanean, bisita egiten didate. Pirineotan ere izan naiz lagunekin.

■ **Itzultzeko asmorik bai?**

■ Gogorik ez zait falta, baina beste asko itzultzen

ez diren bitartean, ni ere ez naiz etxeratuko.

■ **Nola ikusten duzu Euskal Herria?**

■ Nolabaiteko anibalentziarekin. Batzuetan erromantizismoz. Eta beste batzuetan, nazkaz, jendea ez delako gai elkartu eta lana batera egiteko. Zikoiztasunak sekulako amorrua ematen dit eta horrela idatzi dut Interneten, IBSren (Institute of Basque Studies) forumean.

■ **Zer harreman duzue Londresen bizi zareten euskaldunok?**

■ Ehun bat lagun gabilta bueltaka euskal gunearen inguruan. Oraingoz bulego bat utzi digute Oxford Housen, baina Euskal Etxea eraiki guran gabilta. Egiten ditugu gauzak. Orain, adi-

bidez, Euskal Astea antolatu dugu eta erantzun ona izan du: Fermin Muguruza etorri da, ESAITEkoak eta Kontseiluko kide bat, besteak beste. Horrekin bateratsu, berriz, Euskal Kulturaren Ikasketen Nazioarteko I. Jardunaldiak eratu ditugu Guildhall Unibertsitatean, Londresen bertan.

■ **Nolatan jardunaldiak?**

■ Gure departamentu buruak zerbait berezia egin gura zuen Euskal Herria gai hartuta. Horretarako 3.000 libera jarri zituen gure esku. Hori zela eta, Kiko hemengo lagun bat eta biok jardunaldi batzuk antolatzeko aukeraz hasi ginen pentsatzen. Pentsatu eta egin. Kostata, hori bai. Izan ere, urtebete ibili gara hau gertatzen.

■ **Zer eragin izan lezakete jardunaldi hauek?**

■ Jendea konturatu egingo da teknologia berriak garrantzi handikoak direla jakintza zabaltzeko. Eta Euskal Herrikan kanpo bizi garen euskaldunok ere badugula zer eskainirik. Horrekin batera, aukera eman diezagukete jende askorekin hitz egin eta proiektu bateratuak egiteko.

Kontuan izan laurogeitik gora lagun elkartu gara lehen jardunaldi hauetan. Batzuk Renotik etorri dira. Iowa, Kalifornia eta Floridako hainbat unibertsitateatik ere etorri dira. Baita Paris, Londres, Surrey, Edinburgo eta Euskal Herrikoetik ere. Harremanak majo landu ditugu hemen. Seguru nago hemendik proiektu bat baino gehiago aterako dela.

Iritzia

Oraingo artikulua hau nire bizitzan idazten dudana hirugarrena da. Aurreko biak unibertsitatean idatzi nituen, eta gogoratu ez arren lepoa jokatuko nuke bostekoarekin gainditu nuela asignatura hura. Ez zen errega, iritzi artikulua irakaslearen iritziarekin bat etorri ezik jai geneukan edo hori zen guk uste genuena behintzat, beraz, kazetaritza lanetan baino psikologikoetan jarduten genuen. Irakaslearen subkonzientea ezagutzera bideratzen genituen gure indarrak: "honetako edo bestelako egunkaria irakurtzen du, halako artikulua idatzi du egunkari honetan, etab..." Gaur egun gauzak ez dira larregi aldatu niretzat, iritzi artikulua bat idazteko eskatu didate eta boligrafoa eskuan hartu bezain laister Uri Geler-en goilararena gertatu zaio boligrafoari. Taberna zuloetan hamaika iritzi botatzeko ohitura dugunok, Keler pare bat eran beharko genuke idazten hasi aurretik.

Zoritzarrez, goizeko hamarrak dira. Lagun batengana jo dut gomendio eske, unibertsitatera alperrik joaten ez zen horietakoa da eta berari esker zenbait eredu eta artikulua mota desberdin eskuratutut:

Politikoa: Zerbait lortzeko egiten dena, aspergarri xamarra izan behar du, futbolarien partidu osteko adierazpenen kutsukoa.

Intelektuala: Inork gutxik ulertzeko egiten dena. Neskaren batekin ligatzeko baliagarria izan ohi da.

Sasi-intelektuala: Liburu sendo bateko 612. orrialdetik kopiatu edo beste norbaiti entzundakoa originalaren itxuraz aurkeztua.


Arrisku-gabekoa: Idatzi baino lehen irakurlearen gehiengoaren onespena ziurtatzen duena. Durana kalean gora eta behera lasai asko pasiatu ahal izateko.

Euskaltzainarena: Euskaltzaina ez izan arren hizkuntza maila paregabea erakusten saiatzen dena.

Promozional-subliminala: Harpidetzak lortzea helburua duena: "...egin zaitetz Putzeko harpide Arrasateko 168 posta kutxan".

Beste asko ere badaude, baina pertsonalki gehien atsegin dudana anonimoa da.

Anonimoa: Artikulua inork ez duenean sinatzen, edo, Putz-en bezala, ezizenak erabiltzen direnean, nahiz eta ez jakin oraingoan lortu ahal izango dudana.



Jon ETXEBERRIA

Haizea taberna



Gustoko giroa

Mitarte, z/g
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 85 57

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tel.: 943 79 20 64

IBARRA ESTANKOA



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77



Uraren eguna, San Fermin eguna, Euskararen eguna... ez da ekintzarik faltako udaleku irekietan

Uztaileko egunak jolaserako antolatutak

Ume eta gaztetxo askok ez du gogoko eskolara joatea baina oporretan ere zer egin jakin ez eta aspertu egiten da. Zer egin? Udaleku irekietan izena eman eta ederto pasatu. Ez da aukera txarra, ez horixe! eta gurasoak ere umeak etxetik bidaltzea lortuz gero pozik. Uztaileko hiru astetan zehar dibertsioa izango da nagusi Aretxabaletako kale, plaza eta txokoetan.

Udaleku kultura saila orain hamahiru urte hasi zen udalekuak antolatzen eta geroztik urtero-urtero antolatu izan ditu. Lehenengo "Tiempo libre"ko begiraleekin eta ondoren Ortzadarren laguntzaz hainbat ume pasatu da bertatik. Ondo pasatzea eta euskaraz egitea helburua izanik, ekintza ugari eta ezberdinak prestatu dituzte aurten ere inor ez dadin aspertu.

Uztaila ailegatu da eta neskatila-mutikoz bete zaizkigu kaleak. Izendun txartela lepotik eta mozua margotuta edo zabor poltsak burutik behera jantzita, Herriko plazan, Iturrigorri frontoian edo beste edozein kaletan topatuko ditugu. Herriko 200 bat ume elkartu dira, ondo pasatzea helburua dutela elkartu ere eta hortantxe saiatuko dira 27 bat begirale.

Udalekuek hamahiru urte

Udaleku irekiak antolatze-ko burutazioa Inma Miguel kultur teknikariak izan zuen orain hamahiru urte. "Umeak kanpora joaten ziren udalekuetara eta neure artean esan nuen, zergatik ez egin herrian, gurasoekin egonaz baina era berian gurasoei deskantsua emanaz?" Eta horrelaxe 1987ko irailean eman zitzaizen hasiera udaleku irekiei Aretxabaletan. Ez bakarrik Aretxabaletan, inguru honetan egindako lehenengo esperientzia izan zen, ondoren beste herri batzuek ere animatu egin ziren.

Lehenengo hura esperientzia gutxiz eta gogo

haundiz egin zen. Abuztu-ko opor ostean antolatu ziren 80 bat umekin eta "Tiempo libre" izeneko taldeko kideak ibili ziren begirale lanetan. "80.000 pezetako aurrekontua izan genuen eta umeek 100 pezeta besterik ez zuten ordaindu. Begiraleek, barez, ez zuten batere kobratu" dio Inma Miguelek. Goguan du, gainera, Inmak Orioko aterpetxera egin zuten 3 egunetako irteera "ni zuzendaria nintzen eta 22 urte besterik ez nituen, begiraleak, barez, askoz gazteagoak ziren. Hori bai ederto asko pasatu genuen!"

Aurtengo udalekuak

Hurrengo urtean, 1988an, uztailean antolatu ziren eta hamabost eguneko bitxanda egitea erabaki zu-

ten. 150 bat umek eman zuen izena txanda bakoitzean baina bigarren txandako asko errepikatzaileak izan ziren. Urte askotan Ortzadar aisialdiko taldea arduratu izan da udaleku irekietaz. Aurten ere Ortzadarren ibilitako gazte asko ibiliko da begirale lanetan baina ez da Ortzadar izango hor dabilena momentuz desagertu egin baita.

Gaur egun uztaileko hiru astetan zehar egiten da, txanda bakarrean. Goizean eta arratsaldean batzen dira umeak, bazkaltzeko etxera joanaz. Aurten 3 eta 12 urte bitarteko 180 umek baino gehiagok eman du izena eta ume hauekin 27 begirale dabil-tza lanean, gehientsuenak 17 eta 20 urte bitartekoak. Inmaren esanetan "gurasoek kontrakoa pentsatu

arren begiraleen adin hau oso egokia da, umeak ondo zaintzeko beste zentzu daukatelako eta era berian, mugitu eta jolasteko izugarritzko adorea daukatelako". Aurtengo udaleku irekietako zuzendaria, barez, Olaia Urzelai da.

Udalekuen helburuak

Udaleku irekien helburu nagusia ume eta gazte-koek uztailean zehar ondo pasatzea da. Ondo pasatu baina euskaraz berba eginez, jakina! Adinaren arabera banatuta badaude ere eskola ezberdinetako umeak nahasten ere saiatzen dira taldeak sortzeko orduan. "Umeek normalean lagunak eskolan egiten dituzte eta sarritan lagun horiez kanpo ez dute beste inorekin jolastu gura izaten. Bestela ere nahikoa sailkatuta daude eskola dela eta udalekuetan denak nahastuaz elkar ezagutu eta elkarrekin ibiltzen erakutsi gura diegu" dio Inmak.

Natura errespetatzen ere erakutsiko zaie, hori dela eta ibilaldi ugari egingo dituzte Aretxabaleta inguruko auzo eta zelaietara.

Aurten 3 eta 12 urte bitarteko 180 umek baino gehiagok eman du izena eta ume hauekin 27 begirale dabil-tza lanean



Urtero-urtero egitarau berria
Nahiz eta hasierako ekintza asko mantendu urtero-urtero egiten da egitarau berria. Adin bakoitzak, gainera, bere ekintzak ditu baina gero, egun zehatz batzuetan denak elkartzen dira jai bereziren bat ospatzeko. Uraren eguna hasieratik ospatzen den ekintza da. Otala Zelain egiten da eta urarekin goitik behera mela-mela egin da geratzen dira umeak, horrexegatik da hain dibertigarria! Hori bai, adin bakoitzak bere eguna du, bestela 180 ume batera gehiegitxo izango litzateke eta.

Uztailaren 7an, ostera, Iruñean bezalaxe, San Fermin eguna ospatzen da udaleku irekietan ere. Trikitixa, zezenak, gaztelu puzgarriak eta entzierroa egingo dituzte eguna ospatzeko. Aurten, gainera, egun osoko ekintza izango da bazkaldu ere kanpoan egingo dute eta.

Beste egun batzuk ere badira denak batera ospatuko dituztenak: uztailaren 19an euskararen eguna izango da, antzerkia, trikitixa, berbena eta merendolarekin. Uztailaren 20an gurasoentzat antzerkiak egingo dituzte talde guztiek Zاراia zineman eta udaleku irekiei bukaera emateko, 21ean kanpora txangoa.

Aurten, gainera, berrikuntza bezala, nagusienak gaua pasatzera kanpora joango dira Galartzara, hain zuzen.

Baloratzeko orduan

Urteak eta urteak egon ei dira. Urte batzuk oso onak, beste batzuk, barrez, txarrak. Begiraleengan dago gakoa. Normalean, ume txikiak, 3. maila artekoak oso gustura etorri eta pasa-



“Nagusienak dira gustua egiteko orduan zailenak. Ez dakigu zergatik den, umekeriak iruditzen zaizkielako antolatutako ekintzak edo...”

tu izaten dute. “Nagusienak dira okerrenak, gustua egiteko orduan zailenak. Ez dakigu zergatik den, umekeriak iruditzen zaizkielako antolatutako ekintzak edo... Hori kontuan izanda aurten oso egitarau polita egin dugu, txango eta ibilaldi ugariarekin: Arrasateko igerilekura, Donostiara, gaua pasatzera kanpora irteera... Aurreko urteetan baino denbora gutxiago egongo dira plazan, eurak esaten duten moduan eskolako ekintzak egiten, eta gehiago joku eta aisialdiko ekintzak egiten” dio Inmak.

Arazoei aurre eginaz

Orain artekoan ez da arazo garrantzitsurik izan udalekuetan baina beti dago hau edo hori. Arduretako bat umei istripuren bat gertatzea izan ei da. Urte batean ume batek hanka apurtu zuen, baina ez da ohikoa, ez horixe.

Begiraleekin ere izan dira arazoak beste urte batzuetan: hasi eta gero agertu ez... Aurten horrelakorik gerta ez dadin konpromiso orri bat bete eragin zaie guztiei. Bertan asistentzia, puntualitatea, garbitasuna, giro atsegina jartea, ekintzetan parte hartzea, begirale arteko koordinazioa eta umeen ardura izatea jasotzen dira. Beraz, sinatzen duenak ardura dexentea hartzen du bere gain. Zuzendari, begirale eta arduradun guztien artean 2000. urteko udaleku irekiak inoiz baino atsegina, dibertigarriago eta gozagarriagoak egin gura dituzte. Batzuetan samur lortuko dute, hurrengoan zailagoa izango da baina seguru egon umeek oso pozik pasatuko dituztela uztaileko opor egunak.



Futbitoia

Hogei talde Arlutz futbito txapelketan. Aurreko astean hasiera eman zitzaion Arlutz futbito txapelketari. Aurten herriko taldeez gain, Arrasate, Aramaio eta Eskoriaitzako taldeak ere izango dira. Berauen izenak ondorengoak ditugu: Kilimon, Kemen, TMT, Arlutz, Roko D.T, La Furia, Rayo Aldeano, Bob el ingles, Ezkutu, TPM, APM, Peña Zurito, Los del barrio, TMT 2, Hi txoi!, AT surcos, DDK, Garaje Tanis, Komando Alpargat eta Rude boys.



Pilota

Udako pilota txapelketa jokatzeko ari da. Joan den zapatuan hasi zen Udako pilota taldeak antolatu duen pilota txapelketa eta San Ignazioak arte luzatuko da. Bertan Arrasate, Bergara eta Aretxabaletako partaideak arituko dira. Herriko bikoteak Josu Lasagabaster eta Aitor Alzola eta Asier Mugika eta Unai Uriarte ditugu. Partiduak Iturrigorri frontoian izango dira zapatu goizetan 10:30etatik aurrera.



Piraguismoa

Gallego erreka irteera antolatu da irailerako. Murruxiko mendi elkarte-ko piraguismo sailak piragua irteera antolatu du Gallego (Hueska) ibaira. Irteera datorren irailaren 16 eta 17ko asteburuan egingo da. Oraindik aguro bada ere, piragua zaletuak alde aurretik jakinean egotea nahi izan du piraguismo sailak. Modu horretan, entrenatzen hasteko denbora izango dute, irteerara joateko interesa dutenek.



Mendia

Karakorumean eguraldi txarra dute mendizale atxabaltarrek. Himalayako Karakorumetik iritsi zaizkigun berrien arabera, edurra gogoz ari du han, eta eguraldia hobetu zain daude Atxabaltako bi espedizioak. Alde batetik, Inurrategi anaiek Gleko tontorrerako saiakera atzeratu egin dute, eta bestetik, GIIa egitea helburu duten, Eneka, Inaki eta Jesussek ere arazo berbera dute. Beraz, eguraldia hobetu zain daude denak.

Joseba Larrinaga Moskun izan dugu aurreko astean Espartakiak delako jokuetan. Errusiarren gonbidapena jaso eta orain urte bi ere bertan izan genuen. Bertan bizitakoa eta Sidneyko olimpiadetara begira dituen asmoak kontatu dizkigu gaurkoan.

■ Zergatik eta zertara Moskura?

■ Saiatuk, Euskal Herriko kirolari elbarrituen integrazioarako taldeak, Bartzelonako olimpiadetan Errusiako elbarrituen federazioari jokoetan parte hartzeko laguntza luzatu zion. Ordutik gonbidapena jaso izan dugu Espartakiak delako jokuetan parte hartzeko.

Nik hiru karreretan hartu dut parte, 5.000koan, 400 metrokoan eta bi kmko lasterketan. Ez gara markak egitera joan, parte hartzera eta ahalik eta ondoen egitera baizik.

■ Ze joko mota dira espartakiak?

Espartakiak lehengo Sobietar Batasuneko herrialdeek bi urtean behin ospatzen dituzten kirol jokoa dira. Ez

dira elbarrituentzako bakarrik. Kirolari guztientzako jokoak dira, eta familia arteko txapelketak ere badira.

■ Elbarrituen kirola nola ikusi duzu Errusian?

■ Elbarrituek kirola egiteko dituzten errekurso materialak ez dira agian egokienak. Dena dela, horrelako errekurso eskasekin kirola egiteko jartzen duten gogoia eta ilusioa haundiak dira.

■ Kirolaren arloan zerk aurreratu zaitu gehien?

■ Kirola lantzeko duten modua desberdina da. Kirola herri mailan lantzen da, eta beste kirol kontzientzia bat dago. Kirolari teknikoek herriarentzako lan egiten dute, hau da, herriaren mesederako. Kirola hezkuntza da Errusian. Umetatik kirola erakusten zaie umeei eta hortik kirolari batzuk aterako dira Errusiaren izenean jokoetan arituko direnak.

Joseba Larrinaga Moskutik bueltan Sidneyra begira

■ Turismoa ere egingo zenuen.

■ Ez dugu denbora gehiegi izan turismoa egiteko, baina denbora apurra Mosku ikusteko erabili dugu, Plaza gorria, merkatua... Herritarrek, bestalde, oso harrera beroa egin digute. Herri xumea errekurso gutxikoa izan arren, esku-zabala da eta laguntzeko gertu azaldu da momentu guztietan.

■ Nola aurkitu duzu estatu komunista ohia?

■ Aste batean ezin da larregi ikusi. Dena dela, bi klase sozial nabarmentzen dira Errusian. Alde batetik, sistema aldaketaren ondorioz aberastu direnak, eta bestetik, maila baxuko herritarrak. Erdi mailako herritar gutxi dago.

■ Mosku alde batera utzita, urrian Sidneyn ikusiko zaitugu?

■ Erantzun ofizialaren zain nago eta hilabete honetan ja-


soko dut. Hala ere,

entrenatzen hasiko naiz aurki. Poliki-poliki ekingo diot gorputza gertatzeari, izan ere, azken asteotan pixkat deskantsatzen egon naiz.

■ Atlantan egindakoa erreplikatzeko asmoz?

■ Han izaten banaiz, hortan saiatuko naiz. Nire helburua maratoian domina bat lortzea izango da.





Tenisak arrakasta handia izan du aurtengo udako kirol jardueratan

Barruko kirol jarduerak arrakastatsuenak

Aurtengo udako kirol jarduerak programak aukera zabala eskaini du herritarrentzat, ohiko kirolak hasi eta hain ohiko ez direnetaraino. Bi txandatan antolatu dira ekintzak eta bihar bertan amaituko da lehena. Bigarrena, barrez, datozen bi asteetan egingo da, uztaillaren 21era arte.

Guztira hamaika kirol jardueratan izena emateko aukera egon da. Dena dela, kirol guztiak ez dira aurrera

eraman, kanpoko jarduerak esaterako ez dute arrakasta handirik izan eta eskalada, mendi bizikleta eta patinajearen esaterako, ez da talderik osatu. Bestalde, jende kopururik gehien izan duten kirolak tenisa, igeriketa, esku pilota, badminton eta arku tiraketa izan dira. Orotara 46 neska-mutilek izena eman du.

Datorren urtera begira kirol jarduerak eta udaleku irekiak batera antolatzea

aztertu beharreko gaia izango dela jakinarazi digu Asier Mugika kirol teknikariak. Bere iritziz, uda sasoi honetan umeentzat dagoen aktibitate eskaintza handia da, udaleku itxiak, irekiak, kirol jarduerak... ez oster, ume kopurua. Horren ildotik, kirol ekintzek ez dute behar moduko arrakasta jasotzen. Beraz, udaleku irekiak eta kirol jarduerak eskaintza bateratu moduan aurkeztea pentsatzekoa litzateke.



■ ESKU PILOTA TXAPELKETAN KANPOTARRAK NAGUSI

San Juan bezperan bukatu zen esku pilota txapelketan Oñatiko Iban eta Argider Isasti izan ziren nagusi. Hauen atzetik Arrasateko Ugutz eta Iker Garitaonandia anaiak gelditu ziren. Partiduko emaitza 22-20 izan zen Isasti anaien alde. Final aurrekoetarako sailkatu ziren bikote atxabalarrak, barrez, hirugarren eta laugarren postuak konformatu behar izan zuten. Hirugarrenak Gorka Madinabeitia eta Asier Errasti lehengusuak izan genituen, eta laugarrenak, Sarasua anaiak. Hala ere, bi bikote hauen azken partiduan Xabier Sarasua lesionaturik zegoenez, Xabin Arriolak jokatu zuen bere partez. Emaitza 22-18 izan zen Gorka Madinabeitia eta Asier Errastiren alde.

SARIA QUENBRANTAHUESOS KLASIKAN

Candido Perezek, Quebrantahuesos klasika 10 aldiz jarrarian egin izanagatik, oroitzapenezko mailota jaso zuen Sabiñanigon joan den ekainaren 16an. Saria Miguel Indurainen eskutik jaso zuen 48 urteko atxabalarrak, eta Atarrabiako txirrindulariak benetako balorea behar dela esan zion, klasika hau 10 aldiz egiteko.

Klasika honek bere 10. urteurrena bete du eta Candidok urtero-urtero parte hartu du proba famatuan. Gogoan du, gainera, lehenengo urtean 370 partehartzaile izan zirela eta aurtengoan, barrez, 4500 txirrindulari izan dira.

Oñatin bizi den bere anai Cayetanorekin batera, Deba Goienan Quebrantahuesos proba 10 aldiz egin duten baka-rrak izan dira. Zorionak bioi.



Mari Paz Aretxabaleta iturgintzako dendaria da. Hamar urte daramatza bertan lanean eta gustura dago. Bere lana jendearekin harremanetan egotea eskatzen duelako atsegin du. Bestetik, ordutegia da gutxien gustatzen zaiona.

Mari Paz Vazquez

"Pazientzia izaten ikasi dut, lan honi esker"



- **Noiztik Aretxabaleta iturgintza lanean?**
- Orain hamar urtetatik.
- **Baina enpresa bera noiz sortu zen?**
- Hamazazpi bat urte izango dira sortu zela.
- **Zenbatek lan egiten duzue bertan?**
- Hiru lagunek. Bi iturginek eta nik dendan.
- **Zer ezaugarri izan behar du dendari batek?**
- Denetik pixkat, saltzen jakin, berba egiteko samurtasuna...
- **Gustura lanean?**
- Bai, lana polita da, ordutegiagatik izan ez balitz.
- **Zein motako komunak daude modan?**
- Egurrezkoak eta rustikoak esaterako, baina gaur egun mota guztietako komunak aurki daitezke merkatuan.
- **Zer jartzen da gehiago bainuontzia ala dutxa?**
- Bi komun izanda bainuontzia ere jartzen da, baina gero eta gehiago dira dutxa bakarrik jartzen dutenak.
- **Zer gertatzen da baju komertzialekin Aretxabaletan?**
- Batzuk ixten ari dira. Jendeak kanpora joateko ohitura du erostera, eta herrikoa ez da hainbeste apreziatzen.
- **Irtenbiderik badu arazo horrek?**
- Ez dakit, ez da samurra. Herri txikiek arazo hori dute.
- **Aretxabaleta lo egiteko herria bihurtzen ari da?**
- Herriak bizitza baduela uste dut. Kanpotik etorri den jendearentzako beharbada, lo egiteko herria gehiago da.
- **Aretxabaletako plan estrategikoa egiten ari dira. Zer izan beharko lukete kontuan proiektu horretan?**
- Zinea adibidez, eta gazteentzako ekintzak sortzea.
- **San Ferminetara joateko asmorik bai?**
- Orain artean joan izan naiz, baina aurten ez naiz joango.
- **Udarako plan idealik?**
- Gizona eta biok Caribera joatea.
- **Zer egingo duzu aurtengo oporretan?**
- Hamar egun hondartzara joango gara.
- **Birtute bat.**
- Ez dakit birtutea den, baina pazientzia izaten ikasi dut lan honi esker.
- **Amets edo erronka bat.**
- Orain arte bezain zoriontsu bizitzea.
- **Nork agintzen du etxean zuk ala gizonak?**
- Nik.
- **Udara begira zaintzen zara?**
- Bai, apur bat bai.
- **Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?**
- Alabaz egotea.

**Hies
berria**

Tel.: 943 79 26 99

BEGLABO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

Mitartegani
Jaltzea
Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel: 943 79 17 51



Lie

**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59



ARETXABALETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert**

Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxes: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Etterako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxes: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR

Mitarte 3 • Tel. / Faxes: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Etterako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxes: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Altzariaken** (Araba Ibilbidea, 20)
2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean,
arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

pta.

(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)

OKENDO KIROLAK



Maialako Errabala, 13-behea

Tel.: 943 79 92 76

ARRASATE



Jaiak eta jaiak

Pasatu dira San Juanak, pasatu dira San Pedroak eta bertan da San Fermin txupinazoaren zain. Hemendik San Migelak arte, nahi duenak badu gaua non pasatu. Portasolen ere ba ei dabiltz zerbait antolatzen baina ez dakit besterik, beraz, hurrengoan kontaktu behar.

Eskoriatzako IV. Autocros txapelketak, barrez, eskarmentu ederra eman zien "mariztetako" arbolei. Makinatxo bat pilonga emango zituzen haiek orain arte baina uste dut laster ez dutela barkamenik izango. Beno baina ez du erremediorik eta autocrosarekin ari ginen, gainera. **Igor Guenetxea** laugarren gelditu zen jeneralean eta **Andoni Arenazari**, barrez, herriko bigarrenaren saria eman zioten. Baina hauetaz gain beste herritar batzuk ere aritu ziren: **Jose Viciano**, **Andoni Pazos**, **Ruben Testa**, **Joseba Elkoro**, **Aitor Garcia**, **Miguel Abril** eta **Xabier Oñaderra**.

Aurrekoan Quebrantahuesos proban beste atxabaltar bat ere izan zen, **Aitor Garro**, hain zuzen. Aurreko alean aipatu barik utzi genuen, eta oraingoan, hor doa bere aipamena, berandu baina seguru.

Pasatu berri da gatzetxeko jaia ere. Uztaillaren 1ean 70 bat lagun bildu ziren gatzetxe inguruan eta menuan zuten sahieskia ere edarra ei

zegoen. Bazkal ostean, barrez, jolasak izan ziren; par-txisean, **Jeanette Bragadok** irabazi zuen. Futbolinean **Arnaiz anaiak** eta pin-ponean ere anaietako batek, **Iñakik**, alegia. Prestatuta joan ziren, beraz, Arnaiztarrak, behar bada etxean entrenatuta.


Ah! eta badut beste berri atsegin bat ere. **Imanol Galfarsoro** atxabaltarra agertu zen Argia-ko ale batean. Izan ere, Euskal Aste Kulturala antolatu dute Londresen eta Imanol Euskal elkarteko kidea da. Argi dago munduko txoko ezberdinetan ere badirela euskaldunak eta biltzen direla, gainera. Londresen izan ziren Goienako bi ordezkari ere **Mikel Irizar** eta **Joxe Aranzabal**.

Bukatu aurretik, **Jonentzat** doa ondorengo. Sentitzen dugu zure iritzia anonimo ez kaleratzea. Ahalegindu ahalegindu zara horrela izaten, zurea ez den argazki bat bidaliz eta anonimoa sinatuz. Dena dela, gurea ez da Putz bezalako aldizkaria, eta hemen iritziak sinatuta joaten dira. Hurrengoko batean izan beharko du.

Beno eta oraingo, besterik ez. Banoa zapi gorria jantzi eta San Fermini bisita egitera. Hurrengo astean Portasolera eta hurrengorako ere aterako da zeozer.

M. J. Arzak

BESTEAK BESTE



Botoi bat bezala = Como un botón

Juan Kruz Igerabide
Elena Odriozolaren irudiak
Anaya-Haritz, 1999

Juan Kruz Igerabide poesiaren bitartez sartu zen haur literatura lantzen. "Begi niniaren poemak" izan zen bere lehen lan hura eta ordutik hona liburu ugari idatzi ditu haur zein gazteei zuzenduta. Honako hau ere poesia liburua duzue; poesia labur laburrak, esaldi batekoak japoneko Haikuen antzera, giza sentimenduei errepaso bat egiten diotenak. Poesiak bai euskaraz zein gasetaniaz ere ematen ditu eta Elena Odriozolaren irudi ederrekin lagunduta datoz.

8 urtetik aurrera irakurtzeko moduko liburua duzue hau. Autore beraren poesia gehiago irakurri nahi izanez gero "Egun osorako poemak" eta "Haur korapiloak" liburuak ere aurkituko dituzue Liburutegian.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN


Hona hemen gaurko akatsa.

Txarto:

- Zeinek ikasi dau azterketarako?
- ~~Inobezek~~ andereino.

Ondo:

- Zeinek ikasi dau azterketarako?
- Inok andereino.



Denetik

Motorra erosiko nuke.
Tel.: 943 77 09 52 (Paul).

Bi salmahai eta apalategi
metalikoak salgai.
Tel.: 666957983.

Urre zurizko ezkon-eraz-
tuna galdu nuen ekaina-
ren 10ean Aretxabaletan.
Tel.: 943 79 10 70.

Opel Astra GSI 115 cv sal-
gai. 1993. urtekoa.
Txuria. Tel.: 943 77 09 23.
(Roberto).

Piragua salgai. Whip, it.
Arraunekin, "cubrebañe-
ra" eta bi globorekin.
130.000 pta.
Tel.: 943 79 78 36.

Opel Kadet GSI 2000 16 v
salgai. Egoera onean.
Tel.: 943 79 75 11/79 98
08 (Mikel).

Ford Sierra 2000 kotxea
salgai. Egoera onean.
Tel.: 943 79 68 63.

Buldog ingeles txuri bat
saltzen da. Bi urte ditu
eta oso zintzoa da.
Pedigri onekoa.
Tel.: 943 79 21 86. (Jon).

Boxer eta pastor aleman
arrazako txakurkumeak
salgai. Pedigriarekin.
Tel.: 696 057 346.

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira.
Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik.
Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien
ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia honako txoko
honetan jarri nahi baduzu, deitu
943 79 86 21 telefonora
edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

Gaixotasun arazoengatik
negozioaz ezin garelako
arduratu, martxan dago-
en denda alokatzen da
Aretxabaletan.
Tel.: 626 379 326.

Bigarren eskuko ordena-
gailu portatila erosiko
nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Txahalak salgai kongela-
doran sartzeko.
Labeldunak eta natural
hasitakoak. Bildotsak ere
bai. Tel.: 689 541 861.

Roller karabana salgai.
Aurreko estalkiarekin.
Tel.: 943 79 46 84.

Peugeot 306 XR 1.6 sal-
gai. 1993koa da eta
78.000 Km. ditu.
Tel.: 607 15 30 70.

Ford fiesta familiarra sal-
gai. 16 v. SS-BB.
Tel.: 943 79 91 27.

Opel kadet GSI 2.0, 130
zaldikoa salgai.
Tel.: 943 79 16 43.

Peugeot 205 salgai.
Tel.: 943 77 16 03.

Etxebizitza

Garajea salgai
Murubiden.
Tel.: 943 79 88 15.

Logela bat alokatzen da,
pisu konpartitu batean
Arrasaten.
Tel.: 943 79 23 96.

57 m²ko garajea salgai
edo alokagai Errekaba-
rren kalean.
Tel.: 943 79 74 73.

Etxe bat erosi nahi da
Aretxabaletan.
Tel. 649 16 86 69.

Garajea salgai/alokagai
Murubiden.
Tel.: 639418106.
(Ilunkaran deitu).

Herriko plazan lokal bat
saldu edo alokatzen da.
Tel.: 943 79 77 30. Egoera
onean.

Laredon apartamendua
alokatzen dut. Hondartzan
ondoan.
Tel.: 943 79 52 80 edo
656 717 745.

Laredon apartamendua
alokatzen dut. Abuztuan
astebete eta irailean 15
egun. Tel.: 943 79 31 47.

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

Lana

Abuztuan herriko gastro-nomi elkarte bat garbitzeko pertsona bat behar da.

Tel.: 943 79 62 63.

Xaramela tabernan lan egiteko pertsona bat behar da.

Tel.: 943 77 11 92.

Portalak garbitzeko neska bat gertu dago.

Tel.: 676393642.

Aretxabaletan zabalduko den kafetegian lan egiteko zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. Hobe esperientziadunak.

Tel.: 600264164.

Neska jatetxea garbitzeko eta sukaldean laguntzeko gertu dago.

Tel.: 600 600 531.

Lan deialdi publikoak

Eibarko Udala. Kultur laguntzailea. Oinarriak: GAOn 2000/06/12. Epea: EAOn argitaratu eta hurrengo 20 eguneko epean.

Beasaingo Udala. Perkusio irakaslea.

Oinarriak: GAOn 2000/05/02. Epea: EAOn argitaratu eta 20 eguneko epean.

Errenteriko Udala. Porteroa, garbitzailea, elektrizista, lorazaina, administrari laguntzailea, administraria, erdi mailako teknikaria, liburuzain laguntzailea. Oinarriak: GAOn 2000/06/12. Epea: EAOn argitaratu eta 20 eguneko epean.

Mutiloako Udala. Administraria. Oinarriak: 2000/06/19. Epea: 2000/07/10.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

DELINEATZAILEA. Deba Goiena.
Erref.: 34837/4

IGERILEKUKO SOROSLEA. Durangaldea.
Erref.: 35418/2

DENDARIA. Gasteiz.
Erref.: 35268/1

60 ELEKTRIZISTA OFIZIALAK. Arabako lautada.
Erref.: 35160/2

INTERNETEN ADITUAK. Gasteiz.
Erref.: 34968/3

INGELESEKO IRAKASLEA. Arabako lautada.
Erref.: 34818/2

MANTENUKO TEKNIKARIA. Deba Goiena.
Erref.: 33459/2

BI ITZULTZAILE. ERDARATIK EUSKARARA. Arabako lautada.
Erref.: 33333/1

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

Herriko
plazan

ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tel.: 943 79 23 43

**BASTER-
ALDE
JATETXEA**

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA

**AZKARATE
ARROZTEGIA**

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETA
943 77 01 24

**T
X
I
L
A
R
R
A**

**ELIKADURA
BEREZIA**



Durana, 35
Tel.: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tel.: 943 79 44 28
ARETXABALETA

UZTAILA**8 ZAPATUA****■ GORPUTZA ETA BURUA INTEGRATZEKO TAILERRA**

Goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara gorputza eta burua integratzeko tailerra izango da. Mari Bel Gomez eta Encarna Mendezek zuzenduko dute. Izena eman nahi izanez gero 943 79 88 53 telefonora deitu.

9 DOMEKA**■ PRESOEN ALDEKO MARTXA URBIARA**

Arantzazutik Sindika ostatuaren aurretik aterako da Urbiara. Bailarako plataformek antolatuta dute.

■ MENDI IRTEERA

Zaraia mendi taldeak Biarritz inguruan dagoen Unzupe lepora irteera egingo du.

10 ASTELEHENA**■ ODOL EMATE EGUNA**

Arratsaldeko 4:30etatik 20:00etara odola eman ahal izango da osasun zentruan.

■ SAN KRISTOBALAK LARRINO AUZOAN

Meza izango da arratsaldeko 7:30ean Larriñoko elizan.

12 EGUAZTENA**■ PRESOEN ALDEKO MARTXA NAZIONALA**

Arratsaldeko 5etan herritik pasatuko da 6ak artean. Herriko taldeek testigua eramango dute.

15 ZAPATUA**■ YOGA HASIERAKO IKASTAROA**

Yogako ariketa garrantzitsuenak egingo dira ikastaro honetan. Goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Informazioa: 943 79 88 53.

14, 15, 16**■ PORTASOLGO JAIK****22 ZAPATUA****■ YOGA HASIERAKO IKASTAROA**

Yogako ariketa garrantzitsuenak egingo dira ikastaro honetan. Goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Informazioa: 943 79 88 53.

LEHIAKETAK**■ ARRASATEKO KOMIKI EZ SEXISTEN LEHIAKETA**

Komikiek baldintza hauek bete beharko dituzte: lanak txuri-beltzean edo koloretan aurkez daitezke. 17x24 cm.ko edo proportzio bereko formato bertikalean aurkeztuko dira. Testuak euskaraz zein gazteleraz aurkez daitezke. Irabazleak 90.000 pezetako saria eskuratuko du. Lanak aurkezteko epea uztailaren 21ean bukatuko da eta Arrasateko Udalerak aurkeztu beharko dira. Herriko plaza z/g/20500 ARRASATE. Tel.: 943 79 09 00.

■ VI. BALEIKE KOMIKI LEHIAKETA

Lehiaketa honetan 14 urtetik gorakoek har dezakete parte. Gaia libre da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokionez, A-4 neurriko 2 orrialde edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak. Aurkezteko epea uztailaren 28a artekoa da. Irabazleak 50.000 pezeta jasoko du, eta 30.000 pezetako bigarren sari bat egongo da. Argibideak 943 86 10 56.

BALITXAK (Hikaz berbetan)**GORA SAN FERMIN!!!**

Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

Zorion agurrak



Maialen Elorza
Ekainak 14
Zorionak eta
urte askotarako.
Etxekoak.



Igor Mondragón
Uztailak 1
Etxekoen eta
lagunen partetik
zorionak.



Esti Unanue
Uztailak 6
Zure aitona
amona eta
Mariaren partetik
zorionak.



Inma Miguel
Uztailak 7
Gora San Fermin
eta aupa Inma.
Zorionak. Zure
lankideak.



Pili Seijo
Uztailak 13
Zorionak zure
famiariaren partetik.



Karmele Martínez
Uztailak 15
Libratuko zinela-
koan? Zorionak
eta muxu pila
bat. Lagunak.



Edorta Antxia
Uztailak 17
Zorionak zure
urtebetetzean,
zorionak, ta urte
askotarako...
Zure koadrila.

Zorion agurrik argitaratu
nahi baduzue,
Aretxagazetara zuzendu,
Durana, 11 2. solairua.

Txistuak • Txaloak

Denok errespetua eskatzen dugu. Oinezkoek, gidariak, txirrindulariek... Semaforo baten kolore gorriak zer esan nahi duen badakigu, gidarientzat gelditzea esan gura du, oinezkoentzat, barrez, itxarotea. Baina ezusteko bat baino gehiago izan dugu, kalea bi aldetara begiratu barik pasatzen hasi eta txirrindulariekin. Izan ere, txirrindulari gehienek ez diote jaramonik egiten semaforo gorriari, eta horrek esanahirik izango ez balu bezala aurrera jarraitzen dute. Txirrindulariak dira, bestalde, errespetu gehien eskatzen dutenak, baina eskuko hatzamarrez konta daitezke gure herrian semaforoa gorria dagoela gelditzen direnak. **Txistua**, beraz, txirrindulari hauentzat eta gelditzea gura ez baduzue, ondorengo kontseilua zuentzat: hurrengoan bariantetik joan.



Jaiotakoak

■ **Mara Hernández Beltrán de Heredia**
Ekainaren 25ean.

Hildakoak

■ **Jose Mari Madinabeitia Ezkibel**
Uztailaren 2an/69 urte.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.L.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murrukixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdia

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Zuazuatarrak 1930ean

Oraingo hau Eguilior baserriko Zuazua familia da. Betidanik bizi izan dira Zuazuatarrak baserri honetan, baina garai batean baserria Otalararena, eta ondoren, Otazuna ere izan zen.

Zuazuatarrak Aramaioko Azkua auzoko Zuatzu baserrian zuten jatorria, bertatik lehenengo Marinera etorri ziren, ondoren, Apotzako Gaztañudira, eta azkenik, Eguiliorren jarri ziren bizitzen.

Guztira hamar seme-alaba

izan zituzten argazkian dauden Esteban Zuazua eta Basili Urrutiak. Timoteo, Antonio, Maxima, Basili, Jose, Tomasa, Isabel, Eugenio, Jesus eta Damaso. Argazkian Eugenio, Jesus eta Damaso falta dira. Lehena fraile zegoen, beste biak, barrez, jaiotarik. Gaur egun Zuazua-Eguren familia bizi da Eguiliorren.

Familia haundiak ziren ordukoak, gaurko familia nuklearraren ondoan.

Jakin dezagun, bada,

1930. urtean Egileor baserri aurrean argazki dotore hau aterata zutenak nortzuk diren: **Goian zutik: Esteban Zuazua, behean ezkerretik eskumara: Timoteo, Antonio eta Jose Zuazua (aitajauna), Frantziska Etxebarria (amandria), Maxima eta Basilia Zuazua, Basilia Urrutia (ama), Jose Zuazua (umea), Tomasa, Isabel Zuazua eta Juanita Murguia.**

Argazkia: Basili Zuazua
Informazioa: Basili Zuazua eta Antonio Zuazua.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



**Eskua luzatzen dizugu
bankan Interneten bidez
sar zaitezzen**

Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletatik eskua luzatzen dizugu erraztasun osoa izan dezazun bankan Interneten bidez sartzeko. Laguntza teknikoa ere emango dizugu 902 333 353 Telefono Zerbitzuaren bidez, inoiz ez zaitezen trabatuta geratu. Eta garrantzitsuena. Super Net Kontua jartzen dizugu eskura, erabilgarritasun osoa duena inolako komisiorik gabe, zure aurrezkiekin askatasun osoz nabiga dezazun errentagarritasun altuan.

**Orain Super Net Kontuarekin
aukera berriak irekitzen zaizkizu:**

- Errentagarritasun handiagoa kostu txikiagoekin
- Azkartasun eta erosotasun handiagoa
- Baloreen salerosketa, gordailuak, inbertsioak eta abar momentuan egiteko. Inbertsiogile handien abiadura berberaz mugitzaitez.

ezaugarri nagusiak

* Ondorengo ordainketa lehen pezetatik hasita:

- 0tik 199.999 pta.ra, % 0,10eko UTB (% 0,10eko nominala)
- 200.000tik 999.999 pta.ra, % 2ko UTB (%1,982ko nominala)
- 1.000.000etik 2.999.999 pta.ra, %3ko UTB (% 2,960ko nominala)
- 3.000.000tik 4.999.999 pta.ra, %4ko UTB (% 3,928ko nominala)
- 5.000.000tik 10.000.000 pta.ra, % 5eko UTB (% 4,889ko nominala)

✓ **Ez du helbideratzerik onartzen**

✓ **Gehienez 10.000.000 pta.ko zenbatekoa**

- ✓ Erabateko erabilgarritasuna
- ✓ Mantentze-komisiorik gabe
- ✓ Interesak egunero kalkulaturik
- ✓ Interesak hileroko ordainduta
- ✓ Kontua sukurtsaletan irekita

901 333 444

www.cajalaboral.es



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

**Erantzun
zuzena**

autopista

REGALOS
Especial
 Rallye de España
Catalunya
 (16 páginas centrales)
Póster



COMPARATIVA

ford focus

bere klaseko onena

ford **focus**-ek
 auto salduenen artean
 harrera onena lortu du.

	Batez bestekoa	Jokaera/ egonkortasuna	Diseinua/ estetika	Bizigarritasuna	Direkzioa	Erosotasuna	Ziurtasuna	Soinu maila
ford focus	8,29	9,49	9,41	9,29	9,05	8,88	8,68	7,83
Volkswagen Golf	8,28	8,34	9,02	7,79	8,77	8,6	8,65	7,33
Opel Astra	7,85	8,6	9	7,77	8,33	8,1	8,16	7,65
Citroën Xsara	7,61	8,17	8,56	8,22	8,23	8,15	7,96	6,58
Renault Megane	7,6	7,66	8,77	7,93	7,91	7,97	7,99	6,09
Peugeot 306	7,31	8,37	8,41	7,7	7,94	7,44	7,97	5,81
Segmentuaren media	7,55	8,02	8,52	7,86	8,07	7,73	7,96	6,43

Iturria: Autopista aldizkariak 322.000 auto gidariren artean egindako 10. Makro inkesta (2.124.zenb., 2000ko martxoaren 28tik apirilaren 3ra arte.)

MUGARRI

DEBA GARAIKO
 BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
 Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

